

OINARRIAK

1. PARTE HARTZAILEAK

- Mondragon Unibertsitatean 23/24 ikasturtean matrikulatutako ikasle eta bertako langileak.

2. GAIA

- Une (momentu) erabakigarriak kirolean.

3. SARIA

- 150€ + MUko sudadera argazki onenaren saria.
- Argazki irabazlea, 24/25 ikasturteko Kirol Zerbitzuko programaren portadan erabiliko da.

4. LANAREN BETEBEHARRAK

- Gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake egile bakoitzak, kolore edo txuri-beltzean.
- Argazki bakoitzak izenburua eta azalpena izan behar du.
- Argazkiek jatorrizkoak eta eskusiboak izan behar dute.
- Argazkiak globalki ukitzea onartuko bada ere, ezingo dira gehitu edo kendu bere jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak.
- Argazki guztiak JPEG formatukoak izango dira eta ahalik eta kalitate handiena izan behar dute.

5. LANAK AURKEZTEA

- Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko da, posta elektronikoz. Emaila: kirolak@mondragon.edu.
- Lan guztiak Kirol Zerbitzuaren webgunean izango dira ikusgai.

6. AURKEZTEKO EPEA

- 2024ko maiatzaren 17a, ostirala.

7. EPAIMAHAIA

- Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia.

8. EBAZPENA

- Argazki irabazlea zein den, Maiatzaren 27an argitaratuko da Kirol Zerbitzuaren webgunean.

9. JABETZA

- Aurkeztutako argazkiaren jabetza egilearena izango da.
- MUko Kirol Zerbitzuak argazki saritua programaren diseinuan erabiliko du eta gainontzeko argazkiak webgunean izango dira ikusgai, beti ere egilearen izena aipatuta.
- Argazkiaren edonolako beste erabilpen bat egiteko, egilearekin adostuko da.